



DATUAK EZAGUTZEKO JARDUERA:

Datuak ordenatuz

Datuz inguratuta gaude! Inguruan duguna ere mila daturen bidez deskribatu edo interpretatu genezake. Zenbat urrats egin ditugu eskolara bidean? Zein da ikaskideen zapaten neurria? Ze koloretako kamisetak erabiltzen ditu gehien irakasle bakoitzak? Zer moduz egin dugu azterketa?


Datu ezberdinak bildu eta antolatzen jakiteko gaitasuna oso baliagarria izan daiteke, eta, beraz, inguruko datu sinpleekin jolasean hasteko jarduerak da hau.

Inguruan ditugun datuak bildu ondoren, haiek ordenatzeko modu ezberdinak daude, baina denak LATCH arauari jarraituz ordena daitezke.

LATCH (Location, Alphabet, Time, Category, Hierarchy) , euskaraz KADKH (Kokapena, Alfabetoa, Denbora, Kategoria, Hierarkia).


Honi jarraituz, taldeka edo banaka ausaz gelako 5 objektu aukeratzeko eskatuko diegu ikasleei, (estutxeko materiala, liburuak, erregela, arropa, hamaiketako...), eta, ondoren, gauza horiek guztiak LATCH arauen bitartez kokatzeko eskatuko diegu, euren mahai gainean edo paperean.

- **Kokalekua:** Ikasleek paper batean irudikatu beharko dute eurek aukeratutako materiala non dagoen kokatuta. Gelan zehar barreiatutako gauza ezberdinak hautatu baditu, gelako mapa bat irudikatu beharko du agian. Aldiz, mahai gaineko objektuak hautatu baditu, mahaia irudikatzeko laukizuzen bat erabili dezake eta objektuak laukizuzen horretan duten kokalekua adierazi.





- **Alfabetoa:** Ikasleek eurek aukeratutako objektuak hartueta, haien izenaren arabera, alfabetikoki ordenatu beharko dituzte, ezkerretik eskuinera. Posible da objektu bera adierazteko izen ezberdina erabiltzea ikasleek, beraz, izen horietako bat aukeratu beharko dute jarduera hau burutzeko.



- **Denbora:** Ikasleei euren datuak denbora kontuan hartuta kokatzeko eskatuko zaie; zaharretik berrienera, edo sortu ziren urtearen arabera (informazioa izanez gero), edo jarduera hau burutzeko orduan aukeraketa egiteko jarraitutako ordenaren arabera.
- **Kategoria:** Kasu honetan, ezaugarri bereizgarrien arabera ordenatu edo multzokatuko dituzte objektuak, adibidez, koloreari erreparatuz edo objektuaren jabetzaren arabera. Hemen ikasleek askatasuna izango dute nahi duten ezaugarrian erreparatzeko.
- **Hierarkia:** Kasu honetan, garrantziaren edo tamainaren arabera ordenatu beharko dituzte gauzak.

Jarduera hau burutu bitartean, ikasleak inguruan ditugun datu ezberdinez oihartzen joango dira eta datu hauekin errepresentazio ezberdinak egiteko moduak ikasiko dituzte.



KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Ikasleek inguruko objektuen baitako datu ezberdinak ezagutu, interpretatu eta hauek ordenatzeko modu ezberdinak ezagutzea.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Jarduera burutu behar dute, baina ez dute hasieratik ondo egin beharrik. Kontuan izan jarduera hau berria dela eurentzat eta agian laguntza apur bat beharko dutela. Horrekin batera, komenigarria izan daiteke ikasle talde bakoitzaren lanak denon artean analizatzea, eta, ondoren, horien inguruko hausnarketa egitea hurrengo urratsa egin aurretik.